

æk  
22.korrika

# Gurasoentzako unitatea A2 (AUTOIKASKUNTZA)



Ezagutzen dituzu **PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**? Eta **ENE KANTAK**? Umeekin euskaraz aritzeko zenbait kanta ikasi nahi duzu? Bada, aurrera!

æk



## PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Ezagutzen dituzu? Nor da nor?



Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez) pailazo-hirukotea da. 1987ko abenduaren 24an sortu zen, Lasarte-Orian (Gipuzkoa), eta gaur egun Euskal Herriko pailazorik ezagunenak eta arrakastatsuenak dira.



2017. urtean KORRIKari eskaini zioten urteko ikuskizuna. Eta, orain, 22. KORRIKak omendu egingo ditu. Zergatik? 34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan eta euskaraz. Hasieran, euskara ikasi eta hobetu egin zuten. Eta 34 urte hauetan, beren ikuskizun eta kanten bidez, euskara eta bizipoza zabaldu dituzte.



Gehiago jakin nahi duzu?  
Bada, zoaz haien webgunera:  
<https://www.katxiporreta.eus/>

**Albiste (2022/01/07):**

22. KORRIKak omendu ditu Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Omenaldia Tolosan izan da, iluntzeko 19:00etan, zirku baten mundu magikoaren barruan, Gure Zirkuaren karpan.

### Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ibilbidea omendu dute AEK-k eta Korrikak

Amondok nabarmendu du pailazoak «eragile aktibo bat» izan direla euskararen transmisioaren aldeko lanean.



#### Astekaria buletina

Irakurri gabe utzi ezin diren artikulak

Jaso nabarmenduriko albistek, astlehenero, zure helbide elektronikoan.

#### HARPIDETU!

[Berria.eus/buletinak/](https://berria.eus/buletinak/)

berria nahi nahi

## 1. Omenaldiaren aurrekoak

### ► Osatu esaldiak (behean dituzu aukerak; baina, adi, lau sobera daude-eta):

1. AEKren koordinatzaile nagusi Alizia Iribarrenek Pirritx, Porrotx eta Marimototsen etxera deitu ..... , 22. Korrikak omendu egingo ..... esateko.
2. Marimototsek jaso ..... deia, eta pozik kontatu ..... berria lagunei. Porrotx zapatak garbitzen ari ..... . Olentzerori jartzeko? Hori ez dakigu...
3. Alizia Iribarrenek Iker Galartzari ere deitu ..... , Korrikak Gure Zirkuan ospatu nahi ..... ekitaldia. Galartzak pozik erantzun ..... baietz, egun horretan karpa libre ..... .
4. Poxpolo pailazoak eta AEKren arduradun Alizia Iribarrenek eta Aitziber Balanzategik Gure Zirkuko karpán egin ..... ongiatorria Pirritx, Porrotx eta Marimototsi.
5. Bilera egin ondoren, omenaldiko detaileak zehazteko, familia-argazkia atera ..... irribarretsu, denek elkarrekin.

**AUKERAK:** ZIREN, ZIRELAKO, ZUELAKO, ZIETELA, ZIETEN, ZUELA, ZITUELA, ZUTELA, ZION, ZUTEN, ZUEN, ZUEN, ZUEN, ZIEN, ZEN


### ► Lotu esaldiak eta irudiak:



A



B



C



D



E

## 2. Omenaldia

### ► Zer ikusi dugu? Azpimarratu:



- a) AEK-ko arduradunak hizketan
- b) Omenduak oroigarriarekin eta hizketan
- c) Trapezistak
- d) Akrobatak
- e) Pailazoak
- f) Malabaristak
- g) Magoa
- h) Musikariak
- i) Jendea txaloka
- j) Jendea aharrasika
- k) Jendea krispetak jaten
- l) Omenduak eta jendea dantzan eta abesten
- m) Animaliak



## ENE KANTAK

HAURRENTZAKO MUSIKA ETA DANTZA EUSKARAZ



2011n sortu zuten Ene kantak Nerea Urbizu Ruiz musikariak (22. KORRIKA kantaren sortzaileak), Urko Oskozek eta beste lagun batzuek. Hasieran, disko bat soilik sortu nahi zuten, baina, urtebete pasatuta, beste bat atera zuten, gero beste bat, eta, konturatu gabe, 9 lan kaleratu dituzte.

Abestiekin batera, dantzatzeko pauso eta koreografiak egiten dituzte. Dantzatzea asko gustatzen zaie, eta haien DVDetan haurrak dantzan jartzen dituzte beti! Baina ez haurrak bakarrik, jende ospetsua ere gonbidatzen dute. Bitxia da ospetsuak haurrentzako kantak abesten eta dantzatzen ikustea, baina zeinen ondo pasatzen duten!

Herriz herri ibiltzen dira ikuskizunak egiten, eta arrakasta handia dute. Aukera baduzu, ez ezazu galdu!

Baina hori ez da dena: ETBn haurrentzako saio bat ere egiten dute, astelehenetik ostiralera. Gehiago jakin nahi duzu? Bada, zoaz haien webgunera: <https://enekantak.org/>



**ENE KANTAK**

**3. DENBORALDIA**

astelehenetik ostiralera  
ETB3n

Goizez 8etan  
Etb3n eta Etb1an

Arratsaldez  
20:00etan

## SAKONTZEN

### ► Bete hutsuneak:

Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez) pailazo-hirukotea da. 1987ko ..... (1) sortu zen, Lasarte-Orian (Gipuzkoa), eta ..... (2) Euskal Herriko ..... (3) ezagunenak eta arrakastatsuenak dira.

2017. urtean KORRIKARI eskaini ..... (4) urteko ikuskizuna. Eta, orain, 22. .... (5) omendu egingo ditu. Zergatik? 34 urteko ibilbidea egin ..... (6) euskal munduan eta ..... (7). Hasieran, euskara ikasi eta hobetu egin ..... (8). Eta 34 urte hauetan, beren ikuskizun eta kanten ..... (9), euskara eta bizipoza zabaldu dituzte.

### AUKERAK:

1

- a) abenduko 24an
- b) abenduaren 24ean
- c) abenduaren 24an

2

- a) gaur egun
- b) herenegun
- c) iaz

3

- a) pailazoak
- b) pailazorik
- c) pailazoek

4

- a) zuten
- b) zioten
- c) zieten

5

- a) KORRIKAK
- b) KORRIKA
- c) KORRIKek

6

- a) dutela
- b) dutenean
- c) dutelako

7

- a) euskara
- b) euskaraz
- c) euskaran

8

- a) zuen
- b) zuten
- c) zieten

9

- a) esker
- b) eskerrik asko
- c) bidez

### ► Azpimarratu aukera zuzenak:

1. Bitxia da ospetsuak haurrentzako kantak abesten **ikustera / ikustea / ikusteko**.
2. Zeinen ondo pasatzen **dute / duten / dutela!**
3. **Herriz / Herritik / Herrietan** herri ibiltzen dira ikuskizunak egiten.
4. Aukera **baduzu / bazara / badiozu**, ez **ezazu / zaitetz** galdu!

### ► Aukeratu irakurgaietan azpimarratu dituzun hiruzpalau hitz, eta sortu esaldiak horiek erabilita:

.....

.....

.....

.....

## ZEURE ESPERIENTZIA

### 1. Joaten zara seme-alabekin ikuskizunak ikustera?

- Ez, oraindik<sup>1</sup> oso txikiak dira.
- Ez, ez daukat ohiturarik.
- Egia esanda<sup>2</sup>, gutxitan joaten gara.
- Bueno, batzuetan.
- Bai, askotan.
- .....

### 2. Euskarazko ikuskizunak ikusten dituzu?

- Orain arte<sup>3</sup>, ez.
- Bai, gustatzen zait euskara entzutea.
- Bai, baina amorrua ematen dit ez ulertzeak.
- Bueno, hemen ez dago eskaintza handirik euskaraz...
- Nik ez, baina nire bikotekidea euskalduna da, eta berak eramaten ditu umeak euskarazko emanaldietara<sup>4</sup>.
- .....

### 3. Zein da umearekin ikusi duzun azken kultura-emanaldia?

- Ez dut gogoratzen.
- Azkenaldian<sup>5</sup> ez dut ezer ikusi.
- Hauxe ikusi dut/nuen duela gutxi<sup>6</sup>:
- .....
- .....

### Gustatu zaizu/zitzaizun?

- Egia esanda, pixka bat aspergarria izan da/zen.
- Bueno, ez da/zen gaizki egon.
- Entretenigarria izan da/zen.
- Umeek primeran pasatu dute/zuten, hori da garrantzitsuena.
- Oso ona izan da/zen, izugarri gustatu zait/zitzaidan.
- .....
- .....

### 4. Ezagutzen dituzu Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun edo kantak? Eta Ene Kantak-enak?

- Egia esanda, orain arte ez.
- Bueno, kanta batzuk bai, telefonoan entzuten ditugu, baina gutxi.
- Bai, haien CD eta DVDak ditugu, eta etxean askotan ikusi ditugu.

### 5. Ikuskizunen bat ikusi baduzu, azaldu zeure esperientzia: noiz joan zaren/zinen, nora, norekin, zer moduz...

.....

.....

.....

.....

.....



#### Hiztegitxoa:

<sup>1</sup> Oraindik: todavía; *encore*

<sup>2</sup> Egia esanda: a decir verdad; *à vrai dire*

<sup>3</sup> Orain arte: hasta ahora; *jusqu'à maintenant*

<sup>4</sup> Emanaldi: actuación; *session, séance*

<sup>5</sup> Azkenaldian: últimamente; *dernièrement*

<sup>6</sup> Duela gutxi: hace poco; *il y a peu*



## TXIS PUN KORRIKA!

GOAZEN DENOK KORRIKA!  
3, 2, 1, 0... TXIS PUN! KORRIKA HEY!

IRRINTZIA

K-O-R-R-I-K-A

KORRI KORRI KORRIKA!

**EUSKARAZ** MARTXAN **ALAI** DENOK  
KORRIKA, DENOK, KATXIPORRETA!

K-O-R-R-I-K-A

KORRI, KATXIPORRETA!

EUSKARAZ, ARRAIO **TXIMISTA!**

KORRIKA, DENOK, KORRI KORRIKA

ARIN PAUSOAK

TIPI-TAUPA **BIHOTZA** TA **ZANGOAK**

**ALTXA BESOAK**, TXALO TXALO, JO TXALOAK!

AIO, AIO! HATOR GUREKIN, HI, PELAIIO!

POZIK BIZI, EUSKARARI HELDU

DIBI-DABA-DABA-DU

EGIN IRRINTZI, EUSKARAZ AIAIAI JIJI!

IRRINTZIA

K-O-R-R-I-K-A, KORRIKA!!

K-O-R-R-I-K-A

KORRI KORRI KORRIKA!

EUSKARAZ MARTXAN ALAI DENOK

KORRIKA, DENOK, KATXIPORRETA!

K-O-R-R-I-K-A

KORRI, KATXIPORRETA!

EUSKARAZ, ARRAIO TXIMISTA!

KORRIKA, DENOK, KORRI KORRIKA

**ESNATU** GARA

ETA GUREKIN BATERA EUSKARA

KANTARI DOA, ESKOLARA LARA-LARA!

ÑAM, ÑAM, BAPO! MMM

TORI BI MUXU, LAU **PIROPO!** (ESKERRIK ASKO!)

ARRATSALDERO PLAZAN ELKARTU, DIBI-DABA-  
JOLASTU

ONDO **LO EGIN**, KOLORETAKO AMETSEKIN!

BAT, BI, HIRU, LAU!!

K-O-R-R-I-K-A

KORRI KORRI KORRIKA!

EUSKARAZ MARTXAN ALAI DENOK

KORRIKA, DENOK, KATXIPORRETA! (ITXARON!)

LAA LA-LA-LA-LA-LA LA LA LA, EI!

LAA LA-LA-LA-LA-LA-LA, EI EI EI!!

LAA LA-LA-LA-LA-LA LA LA LA

LA-LA-LA LA-LA-LA-LA-LA-LAA LA

K-O-R-R-I-K-A

KORRI, KATXIPORRETA!

EUSKARAZ, ARRAIO TXIMISTA!

KORRIKA, DENOK, KORRI KORRIKA, IUPI!

MUSIKA: Xabier Zabala

ABESLARIAK: Pirritx, Porrotx eta Marimotots



► **Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.**



## PAUSOKA

**PAUSOKA-PAUSOKA** BAGOAZ AURRERA  
POLIKI-POLIKI BETEZ GURE **AMETSAK**.

LAGUN ETA **ADISKIDE DENAK BAT EGINIK**  
**BARRE ETA ALGARA**, BA AL ZATOZ GUREKIN  
**PARRANDA ETA DANTZA**,  
EZ DA INOIZ AMAITZEN  
URTEZ URTE ZUREKIN JALGUNE ALTXATZEN.

**PAUSOKA-PAUSOKA** BAGOAZ AURRERA  
POLIKI-POLIKI BETEZ GURE **AMETSAK**.

**ZERU ETA LAUTADAK, DOINUZ BETETZEN**  
**EGUZZIAREN IZPIEK** DENA DUTE SENDATZEN  
GAUR LAGUNTZEN BANAUZU ZURE MAITASUNEZ  
GU BION ARTEAN PENTSAERAK ALDATZEN.

**PAUSOKA-PAUSOKA** BAGOAZ AURRERA  
POLIKI-POLIKI BETEZ GURE **AMETSAK**.

HORI DA! AURRERA!  
PAUSOKA-PAUSOKA!  
**ESKUAK ZERURAAAA...**  
ESKUAK LURRERAAAA...  
ESKUAK ALDE BATERAAAA...  
ESKUAK BESTE ALDERAAAA...

**PAUSOKA-PAUSOKA** BAGOAZ AURRERA  
POLIKI-POLIKI BETEZ GURE **AMETSAK**.

MUSIKA: Xabier Zabala  
ABESLARIAK: Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Beheko irudian **JALGUNE Elkarteko** lagunak dituzue.  
Haiei eskainia da kanta hau.



► **Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.**





## POZIK BAZAUDE

### POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA

POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA

### POZIK BAZAUDE IGERI EGIN

POZIK BAZAUDE IGERI EGIN  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE IGERI EGIN

### POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA

POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA

### POZIK BAZAUDE MUGI BURUA

POZIK BAZAUDE MUGI BURUA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE MUGI BURUA

### POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN

POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN

### POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU

POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU

LETRA: Urko Oskoz

MUSIKA: Herrikoia

ABESLARIAK: O. Bengoetxea, A. Barriola eta J. Apezetxea



- **Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.**



## 1. ATALA: Ezagutzen dituzu?

### OMENALDIA

#### ERANTZUN ZUZENAK:

**OMENALDIAREN AURREKOAK** 1. deitu **zuen**; egingo **zituela** / 2. jaso **zuen**; kontatu **zien**; garbitzen ari **zen** / 3. deitu **zion**; nahi **zuelako**; erantzun **zuen**; libre **zutela** / 4. egin **zieten** / 5. atera **zuten**

**Azalpenak eta irudiak:** 1c; 2d; 3a; 4e; 5b

**OMENALDIA Zer ikusi dugu?** a, b, d, e, f, h, i, l (trapezistarik ez da ikusten, baina egon ziren)

### SAKONTZEN

#### ERANTZUN ZUZENAK:

**Bete hutsuneak:** 1c; 2a; 3b; 4b; 5a; 6c; 7b; 8b; 9c

**Azpimarratu aukera zuzenak:** 1. ikustea; 2. duten; 3 Herriz; 4. baduzu / ezazu

### IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA GUNE INTERESGARRIAK

Omenaldiaren aurrekoak: <https://www.youtube.com/watch?v=O4o4dO9t0ig&t=10s>

Omenaldia 11TBn (albistea, 1'47 min):

<https://www.hamaika.eus/euskal-herria-berriak/gizartea/pirritx-porrotx-eta-marimototsen-ibilbidea-omendu-dute-aek-k-eta-korrikak-gure-zirkuan.html>

KATXIPORRETA webgunea: <https://www.katxiporreta.eus/>

KATXIPORRETA kanala: <https://www.youtube.com/user/katxiporretaTB>

KORRIKA ikuskizuna: <https://www.youtube.com/watch?v=Zdk-j3AJiUk>

ENE KANTAK webgunea: <https://enekantak.org/>

ENE KANTAK kanala: <https://www.youtube.com/channel/UC8CLiqqVcs5gcAQR72Q3XFg>

*Nahieran* gunean, bilatzailean *Ene kantak* idatziz gero, saio guztiak agertuko dira.

<https://www.eitb.tv/eu/>

## 2. ATALA: Kantatuko dugu?

**Txis pun KORRIKA! (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) 7. or.**

[https://www.youtube.com/watch?v=hjKez88zqbY&list=RDhjKez88zqbY&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=hjKez88zqbY&list=RDhjKez88zqbY&start_radio=1)

**Pausoka (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) 8. or.**

[https://www.youtube.com/watch?v=n3J\\_2s\\_X-ko](https://www.youtube.com/watch?v=n3J_2s_X-ko)

**Pozik bazaude (Ene Kantak, Oneka) 9. or.**

<https://www.youtube.com/watch?v=A7GXS3VLGaI>





ALAI



TXIMISTA



BARRE ETA ALGARA



ZERU ETA LAUTADAK



BIHOTZA



EUSKARAZ



EGUZKIAREN IZPIAK




PAUSOKA



ZANGOAK



ALTXA BESOAK



AMETSAK



DOINUZ BETETZEN



LO EGIN



ESNATU



ESKUAK ZERURA



PARRANDA ETA DANTZA



GIRA BUELTA eman



IGERI EGIN




OIHU EGIN



ADISKIDEAK bat eginik



TXALOKA



BURUA MUGITU



SALTOKA



POZIK